



## 8. JARDUERAK

---

Jarduerei dagokionez, bi ataletan badatuko ditugu: gure enpresak egindako jarduerak eta beste kontratatutako enpresek egindakoak.

Gure taldean lau gara, eta bakoitzak zeregin batzuetaz arduratuko da zer eremutan trebeak garen kontuan hartuz. Pablo beste enpresekin edota adituekin dugun harremanetaz arduratuko da, hau da, beraiekin kontaktuan mantenduko da eta gure produktuen modifikazioen berri emango die. Bestetik, Libe, institutuei, tabernei eta bestelakoei gure enpresaren muinari buruz hitz egingo die eta hitzaldietan izango da, Unairekin batera, edalontziaren zehaztazun guztiak emateko. Unai web orria eta sare sozialak editatu eta gestionatuko ditu eta eguneratuta izango ditu. Horrek suposatzen du prezioak, diseinuak... etab. eguneratzea. Azkenik, Jone, bezeroen laguntzaz arduratuko da. Bezeroek arazoak izanez gero, Jone haiekin kontaktuan jarriko da laguntzeko. Honetarako, Whatsapp kontaktu bat izango dute eskuragai kontsumitzaileek, eta honetan, Jone arituko da zalantza zein arazoak argitu eta konpontzen.

Gure enpresaren muina ez diren beste langileak kontuan izanik, zenbait enpresa kontratatuko ditugu edalontziaren funtzionamendurako ezinbestekoak diren piezak sortzeko, gure produktuak etxe eta tabernetara eramateko... Alde batetik, edalontziaren teknologia sortzeko **Nosum** enpresa kontratatuko dugu. Bestetik, correos enpresarekin aliantza egingo dugu produktuak etxe eta tabernetara eraman dezaten.

